

Euskalgintzan: osotasuna eta etapak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-02-27: 3.

Euskalgintza, lehen aldiz Rikardo Arregiren obran agertzen den hitza omen da; esannahi hau adierazi nahirik berba justu baten usman nabilena aurkitu dut ohar hau *2000 Hiztegian*. Zergatik sortu dugun euskaldunok hitz hau hain berandu? Geure buruari galdetu behar.

Euskalgintzan leher zorion aritu zen gazte gartsu honi etorri zitzaion burura lehendabizi.

Beste merezimendu askoren artean, hau ere badu.

Euskalgintzan, beraz, osotasuna adierazten duen lorpenaren bila gabiltza abertzale sentitzen garenok. Batzu zorroztasun handiagoarekin besteak baino, normala den bezala; bakoitza, berea duen arrazoibide pausatuz edo erabateko jitearekin.

Jainkoak ez gaitu berdinak egin!

Bestalde, berdintasuna antzua da, bai naturan eta baita gizaterian bertan ere. Mugagabeko berdintasunaren irudikeria honetan erortzen gara sarri, eta norabidea arteztu behar. Bai ezker-eskuin gizadiko fenomeno sozial, ekonomiko eta politikoetan, eta baita xumeagoak diren beste eguneroko arazoetan ere. Beraz ez da txarra, ez gaiztoa ere, denok berdinean ez pentsatzea; aitzitik, gaiztoa eta txarra dena zera da, geure artean ditugun diferentziak tutorretik atera nahi izatea; kalterik handienak sortzen dizkiguna itsukeria hauxe bada ere.

Osotasuna, edozein arlotan, neurritz kanpo dago.

Herri bat, esan dezagun geurea, gertuen daukagulako besterik ez bada ere, ez da inoiz osotuko; pertsonak bezala, herriek ere bilakabidean ez dute amaierik, zeren eta beti izan daiteke herri bat hobea, justuagoa, aberatsagoa. Euskal Herria izan zitekeen handiagoa eta libreagoa, baina normalean bide hauetan urrunago joateko bideak beti egongo dira irekiak, eta itxiak daudenak irekitzekoak. Askatasunaren alde aspaldi ari da gure herria borrokan. Gaur horretan ari gara, eta borroka honen barruan, eta berriz gertuen dudana gaia aipatzeko, gure hizkuntzaren bizibide negargarrian ari gara azken hamar urte hauetan lorpen batzu burutzen.

Gure inguruan txikia jan zai handi asko ba dago ere! Egiatan garrantzia duena, Eduardo Chillidari askotan entzun izan diodan bezala, ez da beste bateri atera diogun aldea, baizik eta gu zenbat hazi garen.

Inoiz amaituko ez den askatasun bide honetan aurrera goazela kontuan edukiz.

Eta loak hartu gabe.